


Astekaria



elgoi



Erreminta makinaren eskaparatea



San Bartolome 16

PINOTXO

HAURRENTZAKO ZAPATADENDA

Ordutegia: 10.00-13,00 eta 17,00-20,00

Larunbat arratsaldetan irekita



Emaiozu
bizitza
zure

Garbine

EDERGINTZA

GOPUTZ GUZTIKO
DEPILAZIOAK

AURPEGIKO
TRATAMENDUAK
ETA MAKILAIK

GORPUTZEKO
TRATAMENDUAK
MANIKURA-PEDIKURA


- Beroa
- Temperatura bajukoa
- Elekrikoa
-
- Azido glikolikoa
- Kateobitala
- Hidratazioa
- Regenerazioa
- Zimurren aurkakoa
- Aurpegi garbiketak
-
- Reafirmanteak
- Zelulitis tratamenduak
- Masaia
- Papparreko liftina

SOLARIUM-a

LAGUNMOBIL

CARRROGERIAS

Olaso poligonoa • Tel. 74 44 30/Faxa 74 44 36 • ELGOIBAR



GRUA 24 ORDUTAN ☎ (908) 77 34 74

Zure autoa erreparatzen
dizuen bitartean ordezkoa lagako dizugu



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabaló, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92


ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Sexua gizartean

Denok dakigu izenburuan idatzitako bi hitz hauek betidanik lotura handia izan dutela. Sexua beti izan da gizarte guztietako gai handienetarikoa: hori erakusten digute geratzen diren erromatar enperadoreen garaiko irudiek, baita aintzinako greziarren eskulturek eta, nola ez, gure gizartean hain zabalak diren sexu mintzamenek. horiek guztiak argi eta garbi lagatzen dute baieztapen honen balioa.

Sexua gizarte guztietan beti izan da gai eroso, erraza, debekatua eta, zergatik ez, atsegina. Baina, hori bai, beti lagun arteko giro barruan. Horregatik ezin dut ulertu jendearen portaera sexuari buruz hitzegin behar denean; sexuari buruzko inkesta bati erantzunak emateko ordua iristen denean, gure harreman pertsonaletan sortzen diren sexu arazoei aurre egin beharra izaten denean, sexua praktikatzeko dakarren arriskuak irakatsi behar denean eta abar.

Zergatik dago gizarte honetan hainbeste lotsa sexuari buruz mintzatzeko orduan? Sexua beste gai

guztiak baino garrantzitsuagoa al da? Ez al da izango oraingo gazteak oso odolberoak garela?... Ez, nire ustez, galdera hauen erantzuna ez da gizarte honetara aurkitu behar duena, gizarte honetan dagoen hipokresia baizik.

Gizarte hau osatzen dugun guztiok sexuaren gaia normaltzat hartu behar dugu (normala baita). Horrela bakarrik lortuko dugu orain umetxoak direnak konzientziaztea eta sexuaren arriskuak eta gozamenak jakinaraztea.

Baina, hori bai, lan zail hau lortzeko denok egin behar dugu zerbait, denok izan behar dugu partehartzaile gizartearen sexu mintzamenean. Beste garaietako aurriritziak gure barnetik atera beharrean gara, sexuari buruz apezpikuek bakarrik ulertzen dutela ematen baitu, beraiek baitira gai honi buruz hitzeginen dutenak jendearen aurrean. Dena den, nik galdera hau luzatu nahi diot elizako goi estratuari: zein da aingeruen sexua?

Javi León

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

96ko Udal Aurrekontuetan Ongizate Sailean "pintadak... 6.500.000 pta." agertzen da. Azalduko al du norbaitek hori zer den? Alkatearekin egon gara eta berak esan digunez hori Elgoibarko kaleetan egiten diren pintadak garbitzeak dakarren kostua da. Enpresa pribatu batek dauka Ogarbitzeko ardura eta Udalak ordaintzen du.



KEXAK

Pilar ikastetxeko ikasle batzuek BARREnera etorri zaizkigu salaketa bat egiteko. Oraindik ere ibaira zakarrak botatzen dituztenak ei daude, Errosario kaleko etxeetatik bi emakume zaborrak botatzen ikusi baitzituzten.

"Leku-Ederren egoten diren amei eta ume zainei haurrak hobeto zaintzeko eskatu nahi diet. Izan ere, jolasean dabiltzanean paper-kontenedoreetatik paperak atera eta lurlean botata lagatzen dituzte".



TXALOAK

Gazte kuadrila bat etorri zaigu Elgoibarko Haundi futbol taldea txalotzeko. 3. mailan daude eta sailkapenean dagoeneko 3. postuan doaz, zoriontzeko moduko arrazoia, beraz.

ESKUTITZAK

Bihotza eman bizitzari

Politika pentsakera osotariko ihardunek irakitzen duten leize zuloa ulertezina gerta daiteke. Bakarrik, eguneroko elkarbizitzaren oharpide eta ezaguerak adierazten digu indarkeriaren aurka jartzeko. Eramankorra izateak ez du esaterik nahi gaitza onartu behar denik. Pakea ez da gerraren aurkakoa, indarkeriaren aurkakoa baizik.

Lagun bat, talde bat, ideologia bat, edo herrialde bat erabateko gaitza dela sinestean dago gaitzaren sustraia, edo lagun bat, talde bat edo ideologia bat dela erabateko ondasuna sinestean. Iritzi denek dute alderdi on bat.

Aita Saindua eta mundu guztia dago giza eskubideen alde. Baita ere giza- seme guztiek dute jaiotzeko, bizi izateko, heziketa, lanpostua edo herrialde bat izateko eskubidea. Baina den izaera besterik da. Haurtxoei jaiotzea, bizia beraz, ukatzen zaie. Badira heziketa egoki batera iritsiko ez direnak, ogibide ziuurrik edukiko edo familia sortzeko aukerarik ez dutenak. Ehun milioik baino gehiagok beren herrietatik ihes egin behar izaten dute, jauntxo

batzuk agintera heltzeko ametsagatik, herriak hondamendira eramanez.

Herriei dagokien agindu-eskakizuna, burujabetza eskukotasuna ere, eskubide horietako bat da. Baina gaurko aurrerapen eta gaitasun alorrek, merkataritza lehia kidekatzeko lehiakortasunerako bilduma eskatzen dute, Europara begira eta ez erresumen zatiketarik.

Eta gutxiago indarkeriazko abertzaletasunik, herria losintxatuz, gehiengoari pakezko eta elkartasunezko aurrerapidea gaitzetsiz.



Juan Martin Etxeberria

142. zenbakiko kexari erantzuna


BARREneko 142. zenbakian kexen atalean agertu zen kexari eta berau bidali zuen gazteari erantzun nahi diogu Sallobente elkartekoek. Ez da egia jaietako plater tiraketako plater apurtuak erreka bota genituenik, ez eta bestelakorik ere. Urtetan ez dugu hangoek erreka ezer bota. Are gehiago apurtutako platerak kontenedorerara bota genituen eta kartutxo azalak erre egin ziren. Esaten dudana egiaztatzerik nahi duenak hara joan besterik ez dauka erretako tokian geratzen diren arrastoak ikusteko.

San Lorentzo auzoko alkatea

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



OHARRA: Erretratu zaharrak behar ditugu sail honetan ateratzeko. Izan ere, gutxi batzuk baino ez zaizkigu gelditzen. Eskertuko genizueke lagunduko bazenigute. Mila esker.



A

ste honetako erretratua ere **Kontxa Azkuek** laga digu. Kontxak esan digunez 1930. urtearen bueltan ateratakoa da. Erdiko biak elgoibartarrak dira: **Julian Izeta** eta **Francis-**

co Arano edo **Patxi Polon "Baltasar"**.

Patxi Polonek eman zion izena gero sortuko zen **Baltasar Pilota Elkarteari**. Izan ere, Patxiren etxe azpian egin zuten **Baltasar Elkartea**.

Kontxaren esanetan, biak ere nahiko pilotari onak izan ziren; **Julian Olinpiadetara** ere iritsi omen zen.

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

**ETXEAK,
GARAJEAK ETA
LOKAL KOMERTZIALAK
SALGAI**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

Ubitarte 2 behea. Tel 74 13 33
ELGOIBAR (GIPUZKOA)



19 BIEMH

Erreminta makinaren GORAKADA

As lehenean, hilak 11, eman zitzaion hasiera
Erremintaren XIX. Biurtekoari. AFMk
an tola tuta, beti bezala Bilboko
erakusgarritza bezala, eta arte luza tuko da.
Aurten, 1265 enpresa daude ikusgai guztira eta
an tola tzaileek 35.000 profesional
inbentariatu dituzte.

Bide onetik al doa Erreminta



Luis Laskurain
Zuzendari Komertziala

“Orain urte t’erdi krisiari argi berria ikusten hasi zitzaion eta gaur egungo egoera erabat ezberdina da. Optimistagoak izan behar dugu baina gertatuko dena aurrikustea ez dago inoren esku. Alemania eta Frantzia lainoak ikusten ari dira baina horren arrazoia ez da

KONDIA

egoera txarra dela, herrialde horiek oraindik erreazionatu ez izatea baizik. 1995a oso ona izan da, barne merkatuari dagokionean behintzat, eta 1996rako asmoak nahiko baikorrak dira. Halere, gauzak hobetzen diren oihartzuna zabaldu dela eta, kanpotik gero eta kompetentzia handiagoa dator, EEBBetatik, Asiatik, Ingalaterratik... Berrikuntza gehiegirik ez daukagu 1994arekin parekatuz, kontuan izan behar da urte t’erdi baino ez dela pasatu eta 1996a feriaz betetako urtea dela”.



Xabier Gil
Komertziala

“Gauzak hobeto daude baina, hala ere, kontuan euki behar da margenak txixixauak dala eta merkatua zaila. Batetik, enpresia ondo preparauta egon behar da eta bestetik, jende gitxikin, dauan egoeria dauala ere, ondo eran-tzuteko. Gure kasuan perspek-



tibak onak diazela esan leike. Gure enpresia nahiko espezializaua da eta Euskal Herrian ez dakagu kompetentziarikan. 1995a urte ona izan da eta datorrena ere ona izan leike. Halere, oin zikluak motzauak izango dia, krisixak gero eta gehixo egongo dia. Horregatik mantendu bihar da linea bat eta langile kopurua, egoera txarren aurrian ere aurrera egin ahal izateko.

Guk ekarri dogun berrikuntzarik aipagarriena belozidade haundixan fresatzeko kabezala da.”




Nolanahi ere, betidanik esan izan da erreminta makinaren sektorea dela Euskal Herriko ekonomiaren motorea. Eta hala da izan. Europar Elkartean bosgarren postuan dago Euskal Herria sektore horretan eta Elgoibar sektorearen kapital izendatzen da.

Esportazioak gehitu egin dira

Orain urte batzuk krisiaz hitz egiten zen eta garai batean enpresa ezberdinek etorkizuna nahiko beltz ikusten zuten. Halere, bost urte beranduago egoerak buelta eman du. Ekonomiak bere zikloak ditu eta horiei leial, krisi baten ostean garai emankorrak etortzen omen

dira. Balantzeen arabera, 1995 urte ona izan da erreminta makinaren sektorearentzat eta prebisioren arabera, datorrena ere ildo beretik joango dela esan daiteke, izan ere, inbertsioak mantendu egingo baitira. Kontuan izan behar da iaz produkzioaren %59a esportatu zela eta hurrengo erronka, kopuru hori

makina?




Sabin Azkarate
Gerentea

“Gure merkatua ez dago zuzenean erreminta makinarekin lotuta baina aurrakusi dugunaren arabera, bezero askoren bisitak jasoko ditugu. 1995erako geneuzkan asmoak bete egin dira. 1996ari begira ere, gure egoera hobetu egingo delakoan gaude.



Guk, olatuaren gailurrean gaudela esan dezakegu. Gure lana bi arlotan banatzen da. Alde batetik, software sistemak ditugu, Cad-Cam-erako, batez ere enpresa metalmekanikoenentzat. Sistema informatiko horiek bana-tzen ditugu, Estatuko eskusiba daukagu. Horrez gain, terminal batzuk sor-tzen ditugu makinaren fun-tzionamendu eta kalitateari buruzko informazioa jaso-tzeko. Terminal hauek kontrol numerikoko makinei konektatuz, martxan jarri eta pieza fabrikatzen dute.”



Migel Angel Montes
Zuzendari Gerentea

“1995a urte oso ona izan da. Lana izan dugu eta sendotzen joan gara. Aurtengoa iaizkoa bezain ona edo hobea izatea espero dugu. Krisia gainditu den edo ez esatea ez da erraza. Dena dela, bidean aurrera begiratu behar da beti, lo hartu gabe, krisia edozein




momentutan etorri daiteke eta. Krisi garaian asko inbertitu genuen eta horrek asko lagundu zigun gaur egungo egoera lortzen. Guk erreminta makinarako ekipak egiten ditugu, birutak ateratzekoak, filtratzekoak... Era berean, bezero eta enpresa bakoitzari dago-kion arlo eta arazoa, ikertu eta instalazio osoa egiten dugu. Horretan oinarritzen da gure arrakasta.

Adar komertziala ere gaur egun asko landu behar da eta feria horretarako oso aproposa da.”

mantendu edo gehitzea da. AFMko zuzendaria den Alberto Ortueta ren hitzetan, "Asiara bezero ona da. 1985ean %5a esportatzen zen bertara, gaur egun, berriz, %22a". Barne merkatuak martxa beretsuan jarraitzen badu, gutxika gutxika 1990. urtean zegoen maila lortuko da, oraindik ere urte hartako %60a baino ez baita egin. Halere, aditu en esanetan, badira zenbait gauza hobetu beharrekoak: europar merkatua, enpresen arteko kooperazioa, berrikuntza teknologikoa eta langileen formazioa.

1.200 enpresatik gora

1994an 843 enpresek hartu zuten parte; aurten, berriz, 1.200 enpresatik gora izango dira Bienalean. Pabiloieci dagokionean, berriz, bost izatetik 8ra pasa da. Kopuru horiek esanguratsua badira, are



Elgoibartik 20 enpresa inguru joan dira azokara.

gehiago hasiera hasieratik banatu ziren 26.000 kredentzialak. Zenbaki horien handitasuna ikusita, ez da ausarta esatea salmenta garrantzitsuak egingo direla ferian edo, gutxienez, bisitariak erreminta makinan interesik badutela ikusteko era bat da.

Elgoibarko 20 enpresa inguru daude Bilboko erakustazokan.

Metro karratu gehiago edo gutxiago baina, gehienek esan digutenez, ilusioz beteriko feria da. Azken urteak emaitza oso onak izan ditu eta orain bi urte ferian izan ez eta aurten, egoera hobea ikusita, berriz ere animatu denik aurkitu dugu. 1994an itxaropenaren feriaz hitzegiten zen. Aurten, erreminta makinaren sendotzea aipa daiteke.



Pedro Ormaetxea
Zuzendari Gerentea

“Krisiak bi aurpegi ditu: ekonomikoa eta ideien krisia. Lehenengoa, ekonomikoa, lehenago edo beranduago baina gainditu egiten da baina ideien krisia askoz sakonagoa izaten da. Ideiak falta direnean, enpresak zulora doaz zuzenean. Guretzat hiru puntu garrantzitsu daude enpresak



aurrera egin nahi badu: enpresan dagoen ekipo profesionala, bezeroak eta hornitzaileak. Delteco ekipo oso ona dauka, familia handi bat. Ni autobus horren txoferra baino ez naiz. Etorkizunera begira dagoen enpresa da gurea.

Teknologia altuko produktuak ditugu, besteak beste, DEA hiru dimentsiotako makinak, Jung prezisio altuko rektifikadorak edo Chiron produkzio altuko zentru mekanizatuak. Alde batetik makina berriak komertzializatzen ditugu eta bestetik, makina zaharrak behar berrietara egokitzen”.



Jose Maria Zubia
Marketing Zuzendaria

“Feria honek aurrekoa baino hobea izan behar duela ematen du. Izan ere, dagoeneko 26.000 akreditazio eskatu dituzte eta aurrekoan, guztira 29.000 pertsona etorri ziren. Urte askotan kanpo merkatua oso geldirik egon da eta badirudi inbertsioak egin eta gauzak mugitzen ari



direla. Gure kasuan, eskaera handitzen ari da eta hori garrantzi-tsu da. Dagoeneko, hainbat eta hainbat bezeroak agindu digute etorriko direla eta produktua ikusi eta zuzeneko kontak-tua izatea inportantea da.

Teknologia berriak martxan daude. Esaterako, orain arte piezak epeltzerakoan, tratatzerakoan arazoak ematen zituzten torneatzeko erreminta egokia bilatzeko orduan. Orain sortu diren makina hauek zuzenean torneatzen dituzte epeldutako piezak eta momentuz emaitzak nahiko onak dira.”

Joaten al zara Bilboko Bienalera?




AGUSTIN ROBLEDO
52 urte, fresista

Behin izan nintzen orain dela urte asko. Gustatzen zait joatea baina azken aldian ezin izan dut. Forjako piezekin egiten dut lan baina interesgarria izaten da berrikuntzak ikustea.



GLORIA MATEOS
43 urte, etxekoandrea

Ez. Gustatzen zaizkit horrelako azokak, beste batzuetan egon izan naiz, baina erreminta makinaren feriara joateko aukerarik ez dut izan. Parean tokatuz gero, bai.



MANUEL GOY
39 urte, kaldereroa

Itziarren nago lanean eta feraiarako gauzak prestatzen aritu gara. Makina berriak, robotika, informatika... Sektore honetako koentzat derrigorrezkoa da joatea.



EUGENIA GONZALEZ
39 urte, langabetua

Inoiz ez. Tornilo enpresa batean egin dut lan, orain itxi egin da. Kontrol numerikoko ikastaro bat egin dut eta argi dago emakumeok ez daukagula aukerarik sektore honetan.



J. MANUEL RODRIGUEZ
47 urte, espezialista

Orain dela urte asko joan nintzen baina aurten ez dut uste. Hiru aldiz joan naiz bisitari moduan eta denetan makina guztiak begiratu izan ditut. Interesgarria izaten da.



M. ANGELES BERISTAIN
47 urte, etxekoandrea

Ni ez baina gizona bai. Asunto horretan behin ere ez naiz sartu baina politxa izango litzake ikustia zer dan. Parian tokau ezkerok igual jungo nitzake, ikusi egin beharko!

ZU ahaztu informatikaz, GUK aterako diogu gorengo etekina zure ekipoari

Softlan

ANALISIA ETA
PROGRAMAZIOA

Pedro Muguruza, 13
Tel/Faxa: (943) 74 43 61
20870 ELGOIBAR

- DIRUA ETA DENBORA AURREZTUKO DITUZU GESTIO KOMERTZIALAREKIN.
- PRODUKZIO ETA KOSTUEN GESTIOA HOBETO KONTROLATUKO DITUZU.
- MERKATUAN DAUDEN ZENBAIT PRODUKTU STANDAR ESKURTZEN LAGUNDUKO DIZUGU.
- KONTABILITATEA UMEEN GAUZA IRUDITUKO ZAIZU.
- OFIMATIKAKO IKASTAROAK EMATEN DITUGU.
- PREZIO ONAK PC-TAN.



Hot Line egun osoz. Aktualizazioak. Esperientzia duten analistak zure eskutan.

■ Elgoibarko Izarra eta PPren arteko elkarlana

PP alderdiko Juan Carlos Abian zinegotziak, Elgoibarko Izarrarekin elkarlanean, euskararen normalizazioaren alde lan egiteko prest zegoela azaldu zuen asteartean emandako prentsaurrekoan. Abianek Galiziako Xuntak galegoari buruz argitaratutako hizkuntz normalizaziorako arauak aztertzea proposatu dio Elgoibarko Izarrari. “Zenbait punturekin ados egonez gero, gure herrian aplika daitezke”. PPko kidearen ustez, “euskara inposatu egiten da kasu askotan, eta horrek aurkako jarrerak sortarazten ditu”. Esaterako, oposaketetan euskara azterketa puntuagarria izan beharko litzatekeen iritzikoa da Juan Carlos Abian “eta ez eliminatorioa”. Era berean PP alderdia ez dagoela euskararen aurka argitu nahi izan zuen. “D ereduaren aurka botatu genuen azken plenoan, gure ustez A, B eta D ereduaren artean aukeratzeko posibilitatea eskaini behar delako; eredu bakarria inposatzearen kontra gaude”.

■ Masaia ikastaroa

Kiroldegiak, hasi berrientzat bai eta lehenago aritu direnentzako ere masaia ikastaroa antolatu du maiatz, ekain eta uztaileko. Txanda mugatua denez, lehen bait lehen deitu 74 13 61 zenbakira.

■ Emakume langileen orientatzaile ikastaroa

DEBEGESAk eta Deba Beheko Udalek “Orientatzaile lan bilatzaile” ikastaroa antolatu dute Emakumeen Enplegu eta Heziketarako Eskualde Egitasmoaren barruan. Elgoibarren izango da ikastaroa apirilaren 15ean hasi eta irailaren 16ra arte, goizeko 9etatik 2etara bitartean. Langabezian edo lan egoera kaxkarrean eta Giza Zientzietan diplomatutako emakumeei zuzendurik dago. Izena emateko epea hilaren 30ean bukatuko da. Eginkizun honetarako DEBEGESAko 10 23 47ra edo Elgoibarko Udaleko Ongizate Saileko 74 10 08 zenbakira deit.



Herri Institutuko Enpresa Administrazitako 3. mailako ikasle talde honek 15 eguneko bidaia egingo du Manchester hirira, hango City College ikastetxearekin batera eta Gipuzkoako Kutxako dirulaguntzarekin, SOCRATES deritzon nazioarteko programan aurkeztutako proiektuaren barruan. Hil honen 16tik martxoaren amaierara arte Ingalaterrako hiri hartako enpresa eta erakunde ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute. Maiatzaren bukaeran, berriz, Manchester-ekoak izango dira bisitan etorriko direnak.



Lilaton lasterketa ezagunean korritu zuten emakume elgoibartarrak dira argazkikoak. Iragandako igandean izan zen Donostian aipatutako lasterketa, bost kilometro Donostiako kaleetan zehar. Urtero antolatzen den marathoi moduko honetan emakumeek bakarrik hartzen dute parte eta aurtengoa 7. edizioa izan da. Atzeko ilaratik hasita, ezkerretik eskuinera, Elena Etxaniz, Ana Maiztegi, Marian Arriola, Gloria Santiago, Pilar Arriola, Rosa Alamino eta Ana Fernández. Makurtuta, Lourdes Beneitez, Pili Fernández, Mari Eugenia González, Arrate Zubia, Lourdes Zubiaurre eta Pili De La Lama.



Txankakua zubi pareko erremintariaren etxeari agur

Joan den zapatuan hasi ziren Txankakua pareko azken hiru etxeak botatzeko lanak. Santa Klarako errementariaren etxe ezaguna zegoen tokian errotonda txiki bat eraikitzeko asmoa dute, Santa Klara auzoa eta 634 errepide nazionalaren arteko lotune izango dena. Errotondarekin batera parketxo bat ere egingo da eta Jausoro dorretxeko arkuak jarriko da bertan. Goizeko 7etan hasi ziren eraisketa lanak eguerdira arte luzatu ziren. Goiz

osoan zehar herritar mordo bat urreratu zen Txankakuaraino etxea nola botatzen zuten ikusteko. Mangerak batek gruak sortzen zuten hautsa ez altxatzeko ura botatzen zuten bitartean, grua luze batek etxearen hormak behera bota zituen. Une askotan errepideko zirkulazioa eten egin behar izan zuten harri koxkorrak errepidera erortzen baitziren. Erremintariaren etxeko harriak gorde egingo dira eta haiantzako toki apropos bat topatuko.

■ Gipuzkoako 1951ko kintoen bazkaria

Hil honen 31n 1951ko Gipuzkoako kinto guztiak bazkaria izango dute Zumarragako Etxe-Berri jatetxean. Kinto urte horretako elgoibartar guztiak bazkarirako izena eman dezakete honako zenbaki hauetara deituz: J.F. Etxezarreta (88 23 07), J.M. Tolosa (67 19 26), Etxe-Berri jatetxea (72 12 11/72 02 68) edo Ayala taberna (21 12 01).

■ Kutzako ikastaroak

Kutzak antolatutako hiru ikastaro bertan behera utzi behar izan dira jenderik apuntatu ez delako. Komunikazio teknikak, enplegurako orientazio teknikak eta ikasketa teknikei buruzkoak ziren hiru ikastaroak, guztiak Kultur Etxean burutu beharrekoak. Kutzak publizitatea bidali zuen herriko elkarte eta komunikabide ezberdinetara baina jendearen aldetik erantzunik izan ez dutenez, bertan behera uzteko erabakia hartu behar izan du.

■ Kok Art fanzinearen 3. zenbakia kalean

Kokoe Komiki Elkarteak Kok Art fanzinearen hirugarren zenbakia kaleratu berri du. Elkarteak egindako komikiek gain, orain arteko komiki lehiaketan irabazi duten egileen komikiak ere agertzen dira. Lehendabiziko aldiz euskarazko komikiak daude. 200 pta.ren truke herriko tabernetan eskura daiteke Kok Art fanzinea.

■ HB eta aurrekontuak

HBk panel informatiboak jarriko ditu larunbatean kaleetan eta orriak banatuko ditu aurrekontuen inguruan azalpenak emateko. HBko Pello Mendizabal zinegotziak prentsaurrekoan adierazi zuenez “gure emendakinak herriko kolektiboen eskaeretan zeuden oinarrituta, hori baita gure ustez jarraitu behar den bidea”. Aurrekontuen prozesua kritikatu zuen HBkoak, “batzorde bakoitzak ez du bere aurrekontua eztaibadatzeko aukerarik izan guk hala eskatu arren. Gainera, Hazienda Batzordean gure emendakinak aurkeztu genituenean plenoan eztabaidatuko zirela adierazi ziguten. Plenoan, berriz, Hazienda Batzordean eztabaidatu behar zirela esan ziguten”. HBko zinegotziaren ustez, “emendakinak aurkezteko dugun eskubideari muzin egin zioten tripartitoko kideek, PNVk, EA, eta PSEk”, atzetik irizpide politikoak daudela gaineratuz. Presio fiskalari buruz, 82tik 86ra herritarrek 127 milioi gehiago ordaindu zituztela ziurtatu zuen Mendizabalek eta “gastuei dagokienean, inbertsiorik ez da egingo baina Udaletxearen barne funtzionamenduko gastuak igo egin dira”. Gillermo Garateri “gezurtia” deitu zion Mendizabalek Javi Agirrerri esandakoarengatik, “HBren konfidantza osoa dauka Agirrek”. Garateren gestioa “ezkutukoa” dela gaineratu zuen, “Liburutegiko ordezkoen kontratazioa, Kanposantuko proiektua, ... sekretismoa izan da gai hauetan nagusi”. Azkenik, zera gaineratu zuen: “Hobe luke Garatek kontratazio irregularrei buruzko ikerketa martxan jarriko balu”.

Tomas Iriondo:

"Work-home deitzen denak etorkizuna du"

30 urte ditu Tomas Iriondok baina gazte izateak kasu honetan ez du esan nahi apenas bizitzen hasi denik. Informatikan lizentziatua da eta MBA masterra ere badu ESTEren eskutik. Ikasketak amaitu eta berehala Roland Berger nazioarteko kontsultorian

hasi zen lanean eta duela bost urtetik Euskal Herriko Elektronika Industrien Elkarteko Kalitate Saileko eta Teknikoko arduraduna da. Egunean 10-12 ordu egiten ditu lan baina ahal duenean, bere hobbyetarako denbora hartzen du, eskia eta motorra.

- Zein da zuen elkarrearen zeregina?


- Elektronika eta informatikan aritzen diren 95 industria daude gure elkarrearen barruan. Gu aterki antzeko bat gara beraientzat, sektorea ez dadin gelditu, dinamiko jarrai dezan, pausoak aurrera emanaz.

- Eta zure lana?

- Elkarreak hiru departamentu ditu: promozio teknikoa, ekonomikoa eta komertziala. Nik departamentu teknikoa daramat. Gure zeregina, enpresen lana erraztea da, besteak beste, ISO 2.000 izeneko kalitatezko zertifikatua lortzeko orduan, gu baino aurrerago dauden herrialdeei buruzko informazioa eskaintzen diegu... Teknologikoki eman diren azken berrikuntzen berri ere ematen diegu. Aurrea hartu behar zaio etorkizunari, bestela zaharkitua geratzeko arriskua baitago.

- Jendea aukeratzeko, zeri begiratzen diozue?

- Titulazioa bigarren mailako zerbait da. Izugarritzko garrantzia dute hizkuntzek, batez ere ingelesak. Oraindik ere oso jende gutxi dago benetako maila erakusten duena, idazteko gai dena, inolako zailtasunik gabe hitzegiteko gai



Enpresa propioa sortzen hasi behar dira gazteak. Ausarta izan behar da.

dena... Eta horiek asko baloratzen dira. Arrakasta, lanean jartzen duzun gogoren, ilusioaren eta ahalegiaren ondorioz lortzen da.

- Zer falta zaie Euskal Herriko enpresei?

- Komertzializatzeko ahalmena, kanpo merkatua landu behar da. Oso etxekoak gara, orain arte ondo konpondu izan gara eta kosta egiten zaigu kanpora ateratzea.

- Autoenpleguaz asko hitzegiten da.

- Bai, eta egia esan, ez da bat ere erraza, ideia osoa izanik ere hurrengo egunean bertan etor dakizunke konpetentzia edozein tokitatik. Ausarta izan behar da enpresa bat sortzeko baina nik edozein animatuko nuke zerbait egitera.

- Esaterako?

- Work-home deitzen dena, lana norberak bere etxean egitea eta telekomunikazioak erabiliz. Gaur egun, telekomunikazioei

esker, munduko edozein herrialderekin jar zaitezke harremanetan eta zure eskaintza azaldu. Gazteak animatu egin behar dira. Mezuak optimista izan behar du.

- Enpresa berri batek aurrera egiteko?

- Formula magikoa izatea litzateke hori jakitea. Bi aukera daude, zure produktua sortzea edo besteen produktua banatzea. Lehenik eta behin teknologia ezagutu behar da eta gero merkatua nola dagoen, non mugitu behar zaren, nola...

- Zerengatik aldatuko zenuke lana?

- Nire enpresa propioa. Merkatua ziur ikusi eta nire burua ikusten dudana egunean, nire enpresa propioa sortuko dut.

- Gaztea eta arrakastatsua.

- Ez da hori nik dudana irudia. Ikasketak amaitzean mundua jateko prest zaude baina gero konturatzen zara oso jende ona dagoela eta gauzak ez direla hain errazak. Ez naiz gazte arrakastatsu bezala ikusten, ikastea asko daukat, oraindik ez dut prest ikusten nire burua enpresa propioa sortzeko baina denborarekin iritsiko da. Anbizioa daukat eta gauzak poliki-poliki iritsiko dira.

Bainuetxeetara joateko aukera 24.500 pezetatik

Bainuetxeetan egonaldiak antolatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Udaberriean eta udazkenean izango dira txanda ezberdinak eta aurten Arnedillo, Fitero, Zestoa eta Lierganes-eko (Santander) bainuetxeak izango dira aukeran. Arnedillon txanda bakarra izango da, maiatzaren 7an hasi eta 21era artekoa. Fiteron apirilaren 24tik maiatzaren 8ra. Zestoa bost txanda izango dira: apirilaren 16tik 30era, maiatzaren 16tik 30era, ekainaren 1tik 15era, ekainaren 16tik 30era eta uztailaren 1tik 15era. Lierganeseko bainuetxerako hiru txanda daude: apirilaren 8tik 22ra bitartean bata, apirilaren 22a eta maiatzaren 6a ar-

tean bigarrena eta maiatzaren 6a eta 20a bitartean azkena.

Prezioei dagokionean, LISMI, PNC eta CDS pentsioak dituztenek 24.500 pta ordaindu beharko dute. Hileko 60.000 pta. baino gutxiago jasotzen dutenek 60.000 pta; 60.000 eta 80.000 pta. bitartean jasotzen dutenek 75.000 pta, eta 80.000 pta. baino gehiago jasotzen dutenek 82.250 pta. Prezioan sartzen dira bidaia, txekoia, tratamendua eta egonaldia pentsio osoan. 65 urte baino gehiago dituzten pentsionista gipuzkoar guztiak egin dezakete es-

kaera martxoaren 6tik 22ra bitartean Eibarko Jubilatuen Etxean. 1.200 plaza daude.

Arnedillo, Fitero, Zestoa eta Lierganes-eko bainuetxeak daude aukeran



MOTZAK

Lehendakari berriaren Hautaketa Jubilatuetan

- Gaur, ostirala, jubilatuen eta pentsionisten ohiko batzar nagusia izango da arratsaldeko 6etan hasita Jubilatuen Biltokian. Gai ordena ondokoa izango da: 1995ean eginiko ekintza eta gestioen memoria, tesoreria mugimenduak eta lehendakari berriaren hautaketa. Galderak egiteko txanda bukaeran izango da. Ahalik eta jende gehien urreratzea eskatu du lehendakaritzak. Orain arte Iñaki Insausti izan da lehendakaria eta honako bilera honen ondorioz erabakiko da hurrengo nor izango den Jubilatuen Etxearen arduraduna.

Oroimena lantzeko gimnasia"

- Jubilatuen Etxeak "oroimena lantzeko gimnasia" izeneko ikastaro interesgarria antolatu du. Ikastaroa Adindu elkarteak emango du eta izenak dioen bezala, nagusien oroimena mantentzeko ariketak landuko dira. Klaseak astelehen eta asteazkenetan izango dira, arratsaldeko 6ak eta laurdenetatik, 7ak eta laurdenetara. Taldea osatzeko 20 pertsona behar dira guxtienez eta kopuru hori lortu arte ez da martxan hasiko. Izena emateko Jubilatuen etxera hurreratu behar da.

JOSE ARAKISTAIN

"Portero kasualitatez izan nitzan"

Futbolzaleak direnek ziur honako elkarrizketa honekin disfrutatu egingo dutela. Jose Arakistain gizon ezaguna dugu herrian. 59 urte ditu eta txiki-txikitatik futboleant aritu eta Realean, Madrilen eta beste hainbat taldetan jokatu izan du Di Estefano, Santa Maria eta bestelako jokalaria handiekin. Gaur egun futbolak espektakulo gutxiago eskaintzen duen iritzikoa da Jose. Berarekin izan dugun berriketaldian, horiek eta gehiago ere azaldu dizkigu.

- 19 urte eta lehen dibisioan, ez?
- Bai, hala da. 14 urte nituenean Fleje, Elgoibarko lehenengo ekipua etorri jatan eta hantxe hasi nitzan. Urte t'erdi ein eta Realak fitxatu nindun, jubeniletan. Nere nahixa ahalik eta altuen ailegatzia zan eta 19 urte nitxuanian Realian jokatzen naban, lehenengo dibisioan.
- Zein ekipotan jokatu nahi zenuen?
- Nere umetako ekipua Valencia zan. Garai hartan Ignacio Izagirre euskalduna zan hango porterua eta ni ere porterua nitzanez... Gero, Realian egon ginan bixok eta oso lagun egin ginan.
- Portero kasualitatez?
- Bai. Nik defentsa moduan jokatzen naban lagunekin. Behin, porterua falta eta bateron bat ipini bihar zala eta holaxe hasi nitzan.
- Ekipoak fitxatu nahi zintuztene-



- an, zeri begiratzen zenion?
- Realian nauanian ekipa asko etorri jatazen eta momentu horretan profesionalki zuretzat onena zer izan laiken begiratzen dozu. Momentu hartan Madriler a jutia erabaki naban eta ez naiz damutzen. Gero, Elchen eta azkenian Castellonen ibili nitzan.
- Gola porteroaren errua ala jokariaren aziertoa?
- Denetik izaten da. Halere, erruak dira gehixenak. Askotan, gol bat sartu eta hurrengo egunian geldiezina zala irakurtzen nabanian, ezetz esaten nion nere buruari, akaso beste aldera junez gero, beste mugimendu bat eginez gero, baloia geratzia banakala. Erruak dira gehixenetan.
- Geldiketa berezirik?
- Real Madrider 17 urte zeramatzan Kopa irabazi gabe. Gu Txiletik etorri ginan eta finala Sebillan jokatu gendun. Bost minutu falta zala penalti bat gure kontra. Geratu ein naban eta poza izugarrixa izan zan.
- Futbolistek asko ligatzen omen dute.
- Hala esaten da oin eta lehen ere berdin zan.

Hemezazpi urte eta gero Kopa irabaztiak poz haundixa eman zian



- Eta aldageletan, zer komentatzen da?
- Partidu bat irabazi eta gero, aldageletako lehen bost minutuak dia pozgarrixenak. Beste batzuetan tentsiua egoten da... Baina giro ona.
- 37 urterekin utzi zenuen.
- Bai, Castellonen nauala. Etorri zian beste eskaintza batzuk ere baina nik nahixo naban momentu hartan erretiratzia, gero arrastaka lagatzia baino.
- Futbolak espektakulo izaten jarraitzen al du?
- Esentzian futbola beti izango da futbola, baina egixa da espektakulua galdu ein dabala. Ni oin ez naiz futbol zelaira jutun, ez jata gustatzen hainbeste jende, komentarixuak... Telebisioan ikusten ditxut eta partido inportantiak bakarrik.
- Zein ekipotakoa zara?
- Real Sociadadekoa eta Real Madriderkoa.
- Elkartzen al zarete jokalaria?
- Hilan 18an betetzen dia 30 urte Europako Kopa irabazi gendula. Orduan jokatu genduan 11 futbolistak bizi gera eta Marcak danak elkar tu nahi gaitxu.
- Berriro jaioko bazina?
- Futbolista, dudaripe.

Zertan jolasten zenuen umetan?

Gaur egungo haurrek jolasten ez dakitela esaten du nagusi askok. Eta neurri batean arrazoa ere badute. Hain dabilta batean eta bestean okupatuak, askotan denborarik izaten ez dutela beste ezertarako. Halere, haurrak beti haur, eta garaian garaiko jolasetan ibiltzen dira. Gu kalera atera eta gaur-

koan, hainbat herritarren ahotik entzun nahi izan dugu euren garaian zertan jolasten zuten. Jasotako erantzunen arabera, jolas asko eta asko desagertu egin direla ikusi dugu. Horietako bat edo bat berreskuratzerik balego, ziur ume batek baino gehiagok eskertuko lukeela.



Feli Rioja

78 urte, etxeoandrea

Nik oso denbora gutxi izan nuen jolasteko, 6 urterekin hasi nintzen lanean eta, erropak garbitzera joaten nintzen errepara. Okindegia geneukan eta askotan, labaren ondoan "a la zapata" izeneko jolasian jolasten genuen, korroan jarri eta zapatila hanka azpitik pasatzean oinarrizten zen jolasa.

baren ondoan "a la zapata" izeneko jolasian jolasten genuen, korroan jarri eta zapatila hanka azpitik pasatzean oinarrizten zen jolasa.



Agustin Arriola

67 urte, jubilatua

Futbolian, pelotan, kaniketan... Cafe Amistad tabernian limonada botilak hartu eta harek eukitzen zaben gasantzako tapoietako kristalezko kanikia ateratzen gendun eta harekin jokatzen gendun. Beste jolas bat zan bizikletian erroberiariradi-xuak kendu eta alanbriakin makila bat modukua ein eta atzera eta aurrera ibiltzia erroberiak.

Beste jolas bat zan bizikletian erroberiariradi-xuak kendu eta alanbriakin makila bat modukua ein eta atzera eta aurrera ibiltzia erroberiak.

Juan Mugerza

63 urte, jubilatua


Zapi bat erdixan jarri eta ea nork lehenago hartu ibiltzen ginan, "entre navios" deitzen zan beste jolas bat, Txorromorro ere bai... Oin gauzak total kanbi-xau diaz. Pelotan ere frontoian jende askok eitxen zaban eskuz, oin inork ere ez dau eitxen.



Puri Gómez

61 urte, etxeoandrea

Jolasteko denbora gutxi izaten genuen. "Al Calderón" ibiltzen ginen: lurrean arraiak margotu, zenbakiak idatzi eta harri batekin zenbakiz zenbaki saltoka. Ezkutaketetan ibiltzen ginen, "a la ori" ere bai... Kopinik ez goen. Patata bati begiak margotu, trapu bat zerrautsez bete eta huraxe izaten zen gure kopina. Eta ederki pasatu ere!



Eduardo Irusta

63 urte, jubilatua

Futbolian Plaza txikixan, abarketekin ibiltzen nitzan. Ostantzian, ni baserrikua naiz eta gauda zaintzen asko egon bihar nitzan. Arboletara

ixo eta pikuak jan, eta sagar berdiak ere mordo bat hartzen genduzen heltzeko astirik laga gabe. Oin zikina daon errekan igerixan ibiltzen ginan, karramaruak hartzen...



Autoestima

Oso garrantzitsua da gure buruarekin nola sentitzen garen. Izan ere, zenbat eta gehiago maite gure burua, orduan eta gusturago egongo gara inguruko guztiekin ere.

Autoestima gure buruarengan eta gure ahalmenengan dugun konfidantzaren batuketa da bai eta gure buruari diogun errespetua ere. Autoestima altua izateak ziurtasuna ematen du, bizitzeko gogoia, orainaldia gozatzeko gogoia eta baliotsuak garela sentitzen dugu. Autoestima altua izateak, zoriona ematen du eta inguruko artean ere zabaltzen dugu sentimendu hori.

Autoestima bizitza osoan da garrantzitsua, adin guztietan. Baina, batez ere, nagusien artean. Kontuan izan behar da adin batetik aurrera pertsonak ez direla hain beharrezkoak sentitzen eta orainaldian baino gehiago, oroitzapenetan murgilduta bizi izaten direla.

Beti esan izan da psikologikoki onena orainaldian bizitzea dela, etorkizunagatik gehiegi arduratu gabe. Halere, nagusien kasuan, bizi izandako garaia gogoratzea eta urte haietan zein garrantzitsuak ziren ikusketak eta oraindik ere zein neurritan beren beharra duten jakiteak garrantzi handia

du, bizirik sentitzeak hitz batean. Nagusi batentzat pozgarria da bere aldamenen eseri eta aspaldiko bizipenak kontatzeko eskatzea, bere lorpenen berri emateko. Bestean mirespenak bizitzeko gogoia pizten du haiengan. Horregatik, nagusien autoestima indartzeko, entzuten jakitea beharrezkoa da, beraien istorioak entzun eta haietatik ikastea.

Autoestima altxatzeko beste era bat, nagusiei aholkua eskatzea da. Beraien esperientziak erakutsitakoa erreferentzia puntutzat hartu eta haien pausoak kontuan hartuz ari zea. Gure bizitzan "maisu" direla jakinaraztea oso pozgarria da nagusientzat. Laguntza eskatzea. Kasurik egiten ez zaie nean, ezertarako balio ez dutela uste dute eta bizitzeko gogoia galtzen.

Autoestima indartu behar da ahalik eta gehien bai eurak bai eta ingurukoak ere zoriontsu bizi daitezzen.



SEBE MARTIN

Orejuelak

OSAGAIAK:

- Basokada bat irin
- Basokada bat esne
- Azukrea
- Manteka
- Orujoa.

PRESTAKETA:

Osagai guztiak hartu eta nahastu egin behar dira. Baso bete esne eta azukreari irina gehitu behar zaio, poliki-poliki. Mantekarekin gauza bera egiten da eta gero, gustu piskat emateko, orujoa botatzen zaio. Nahaste horretatik masa bat ateratzen da. Fina egon arte landu egin behar da eta gero, botila edo rodilo batekin, zabal-zabal jarri. Masa horrekin hiruki formako zati txikiak egin ondoren olio berotan frijitzen dira. Frijitu eta gero, platerera atera eta gaintetik azukrea botatzen da. Oso goxoak geratzen dira.



Erkuden Idiakez

Muxi kirolak



● **Bezeroa aholkatu ala konbentzitu?**

▶ Biak, bere gustuetan sartu gabe, agian konbentzitu gehiago.

● **Kirolik gustukoena?**

▶ Eskubaloia, dudarik gabe.

● **Kirola egin ala ikusi?**

▶ Praktikatatu.

● **Irabazi ala ondo pasatu?**

▶ Ongi pasata irabaz badaiteke, hobeto.

● **Kalerako, zapatilak ala zapatak?** ▶ Deportezko zapatilak.

● **Svenson ala Barreto?**

▶ Svenson, nire kirol izarririk gustukoena da gainera.

● **Txandala ala praka bakeroak?**

▶ Momentuaren arabera eta segun zertarako den.

● **Kirol arropa marka bat?**

▶ Produktuaren arabera, marka bat edo bestea aukeratzen da.

● **Kolore bat?** ▶ Neri ilunak gustatzen zaizkit.

● **Eskubaloirako, indarra ala teknika?** ▶ Biak dira beharrezkoak.

● **Futbolzalea al zara?** ▶ Askok ez.

● **Zer da zuretzat zailagoa, gol bat sartzea ala baloi bat saltzea?**

▶ Seguraski baloi bat saltzea.

● **Kirola bizitzeko ala bizitza kirolerako?** ▶ Kirola bizitzeko.

● **Inoiz egingo ez zenukeen kirol bat?**

▶ Atletismoa, nahiko aspergarria iruditzen zait.

● **Garestia = kalitatea?** ▶ Gehienetan horrela izaten da.

● **Moda jarraitu ala egokitu?** ▶ Jarraitu.

● **Zein urtarotako kirol arropa gustatzen zaizu gehien?**

▶ Udaberrikoa.

● **Elgorriaga ala Arrate?** ▶ Elgorriaga.

● **Kirol poltsa ala motxila?** ▶ Motxila nahiago dut.

● **Kirolaz aparteko beste hobbyrik?** ▶ Bat esatekotan, argazkilaritza.

● **Kirolek bizi al daiteke?** ▶ Ez. Bueno, segun eta ze kirol, futbolari ona izanez gero agian bai, baina bestela ez.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bilboko erreminta makinaren azoka

DOINUA:

Antton eta Maria

Beti bezela Bilbon

jarri dute zita

interesa duenak

behar du bisita

gure herrian bada

gogo ta irrika

nagusitzen bait goaz

apika-apika

erreminta makina

da protagonista

Elgoibarren hainbeste

ez da landu inun

lan isilean sendo

egin gera jardun

kanpoan lortu degu

nahi aina oihartzun

aurrerantz ere beti

behar da erantzun

nagusitasun horri

eutsi diezaiogun

BERTSO ESKOLA



Kk g

ILEAPAINDEGIA

☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 3 - B

RAKS

SAFETEGIA

74 42 65

**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

laz etxebizitzetzi buruzko kontsultak nagusitu ziren batez ere Kontsumitzaileen Bulegoan

Kontsumitzaileen bulegoan 428 galdera jaso ziren 1995ean, 1994an baino 55 gehiago. Horietatik 402 galdera adierazpenak izan ziren eta gainontzeko 26ak jazarpen-salaketak. 414 kontsulta pertsonalki egin zituzten kontsumitzaileek eta 14 telefono bidez.

Etxebizitzen inguruko gaiak jaso zituen galdera eta kontsultarik ugariena, 230 guztira. Jendeak, batez ere, alojera lege berria izan diren aldaketen berri izan nahi zuen bai eta errenta eguneratzeari buruzkoak, hiri zergaren ordaina... Eusko Jaurlaritzak etxeak erosteko ematen dituen dirulaguntzen inguruan ere izan zen galderarik.

Maila pertsonalean, aseguruari buruzko galderak nagusitu ziren bai eta gremioei buruzkoak ere, besteak beste, aurrekontu eta fakturei buruzkoak.

Gas instalakuntza dela eta galdera asko sortu zaizkio azken aldian kontsumitzaileari eta horrek ere izan zuen eraginik zalantzak Bulegoan argitzeko orduan.

Gainontzean, herri zerbitzuei dagokionean, zergei buruz 11 kontsulta egin ziren. Industri baliabideei dagokienean, gehienak elektragailuekin loturikoak izan ziren. Janariaren arloan, berriz, bi kexa baino ez ziren jaso.

Urtez urte gehitzen doa Kontsumitzaileen Bulegoan jasotzen diren salaketa eta informazio eskaera.



<i>Egindako kontsultak</i>	GUZTIRA	Galderak Salaketak	
■ Etxebizitzak	323	230	2
■ Norbanako zerbitzuak	63	55	8
■ Beste batzuk	55	49	6
■ Monopolioak	42	37	5
■ Herri Zerbitzuak	22	19	3
■ Industri produktua	11	11	-
■ Janaria	2	-	2
■ Azoka diziplina	1	1	-

okindegia eta gozotegia

FOTERO

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

IPINTZA
Pinturak
DEKORATZAILEA

- Pintura eta paperen salmenta
- Maketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- kortinak saldu eta ipini
- kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4 ☎ 74 04 40

Ibarre Torre

- Garai batean Ermuaren deitzen zen auzoan kokatzen da Ibarre-Torre, gaur egun Sallobente izena duen bailaran.
- Denboraren poderioz, etxeko egitura (arkitektur-elementuak, aintzinakoak kendu eta berriak ipini...) eta ingurunean (tailerrak eraiki ziren) aldaketa handiak izan ditu.
- Madalatik kilometro batera eta Basarte edo Sallobente errekatxoaren ondoan dago Torrekua.
- Ikus daitekeenaren arabera, berant erdi aroko dorretxe honek oinplano karratua eta teilatua lau aldetara zituen jatorriz.
- Denborarekin egin diren aldaketek oinplano angeluzuzena eta bi isurkitako teilatua dituen baserri bilakatu dute.
- Aintzinako baoguneak, bina arku eta gezi-leiho eta eskantzuak karrizko harlanduz eraikiak daude. Hormak, berriz, harlangaitzez.
- Aintzinako dorretxea ekialdetik dago luzatua teilape zabal batez,

aintzinako horma barruan eta babestua geratzen delarik.

- Aintzinako ate dinteldu baten ataburu zatia antzeman daiteke, eskubiko atezangoaren harlandu batean gurutze bat grabatuta dagoelarik.
- Hego aldeko fatxadan ertaroko bi arkitektur-elemento aurkitzen dira: arku zorrotz eta gezi leiho bana. Arku zorrotza handia da eta kortako atea da gaur egun. Arkua hiru dobelez osatua dago, harlandu gakoa askoz txikiagoa izanik beste biak baino eta harlanduzko atezangoetan eusten da.
- Arkuaren ezker aldera dago aipaturiko gei-leiho. Lehenengo solairuan hiru leiho dinteldu daude, irekiak.
- Mendebaldeko fatxadak, eskantzuak ezik, ez du aintzinako aztarnarik kontserbatzen. Bederatzi baogune dinteldu ditu bai eta teilape bat ere, azken honek erabat desitxuratzen duelarik.

PELLO ARRIETA




Santi Urain

“Txarriduna” (1932-1992)



- 1932ko martxoaren 13an jaio zen.
- Pilar ikastetxean egin zituen ikasketak. Oinarrizko Hezkuntza amaitu ondoren Deban auto mekaniko ikastaroa egin zuen.
- Txarriduna jatetxea 19 urte zituenean ireki zuten gurasoek. Hasieran jatetxea eta tailer mekanikoa ipini zuten, gaur egun sukaldea dagoen tokian. Itxuraz tailerrak jatetxeak baino gutxiago ematen zuen eta 1966an haren tokian jatetxearen sukaldea egin zuten.
- Mekaniko izatetik tabernari izatera. Taberna eta ostatuaren arduradun izan zen hil arte.
- Madalako auzoaz maitemindutako gizona, Madalako jaiak bultzatu eta antolatu zituen azkenerarte. Ondoren bere seme Imanolek hartu zuen antolakuntza lanen errelebia.
- Loreak izugarri zituen gogoko. Taberna kanpoko leihoak ikusgarri egoten ziren lorez beteriko lorontziez.
- Bidaiatzea zuen bihotzeko pasioa. Edozein tokitara joanda ere, beti aprobetxatzen zuen ostalaritzarekin zerikusia zuen edozer erakusketa etab. ikusteko.
- 1992ko ekainaren 28an hil zen.



MOTZAK

Plater tiraketa Lehiaketa

La Union Ehiza eta Arrantza Elkartek plater tiraketa txapelketa antolatu du apirilaren 20 eta 27 eta maiatzaren 4rako San Pedron. Herritarrentzat bakarrik izango da, izen-ematearen zenbatekoa 1.500 pta. delarik elkarte-kideentzat eta 2.500 pta. gainontzeko-entzat. Parte hartzeko nahitaezkoa izango da tiroko lizentzia edukitzea. Kategorია bakoitzeko sariak banatuko dira eta kartutxo zerbitzua egongo da. Izen-ematea egunean bertan izango da San Pedroko instalazioetan.

Pilota partiduak

Eskolarteko Jokoen barruan benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako pilota partiduak jokatu dira, bihar, larunbata, Ikastolako frontoian goizeko 9.30etatik aurrera. Benjamin B mailan Ikastolako Debakoen aurka jokatu dute. Segidan Benjamin B mailako Plazentziokoak izango dituzte aurrez aurre. Alebin B eta A kategorietan eibartarren eta plazentziarren arteko partiduak izango dira. Infantil A eta B mailetan Ikastolako eta Pilarreko mutilek Debakoen aurka jokatu dute eta azkenik, kadeteetan Elgoibar eta Debako pilotarien arteko lehia izango da. Bestalde, Lagunak Pilota eskolako Bergara eta Murua elgoibartarrek 18 eta 16 irabazi zieten Zizurkilkoei Zaldibiko promozio txapelketan eta kadeteetan Leon I.a eta Garate nagusitu ziren aňorgarren aurrean, 18 eta 15eko emaitzaz. Deba Arroko Txapelketari dagokionean, asteburua honetan atsedena izango dute, hortaz, ez dira partidurik jokatu-ko.



Jose Arriola:

"Ibilixak erakusten dau arrantzan "

■ **Prest kainabera?** - Aarrantza sasoiak bukatzen danielan prest lagatzen dot hurrengo urterako. Gauza danak ondo eixia gustatzen jataz.


■ **Arrantzan hasteko desiatzen, beraz.** - Lehen gehixao. Oin edadiakin gitxio. Gainera hotza eixen badu erreka hotza dao. Egualdi epela da onena. Erreka haundixa dauanian, gero haura bajatzen hasten da; erdi garbitzen hasten danielan. Orduan egoten da amurraina etorten danu gutzia jaten. Txixaria botatzen dozu eta hari ere taka eixten dio.

■ **"Kutxarilia"ren teknika ere badago.** - Bai, kanaberia uretan abantzau eta kutxariliak mamorruan sentsazioa eixten dau. Amurrainak kutxariliari kolpe eixten dio. Gehixenak kutxariliakin ibiltzen dia; txixaria sartzen ibili biharrik gabe. Ni txixariakin ohixu naiz eta neretzat hobia da. Hala ere koto askotan prohibiduta dao txixaria.

■ **Herriko arrantzale onena eizara.** - Asko harrapatutakua naiz baina fakultadiak ez dia berdinak.

■ **Erreka ezagutzea inportantea.** - Gauza asko zaindu bihar diaz. Kainberia bota eta adarretan ez trabatzia; bestetik, pausua nun ematen dozun jakin bihozu... Ibilixak erakusten dau.

■ **Zenbat arrain harrapatu dituzu**



■ **gehienez?** - Kupua ez zauanian, Santanderren 180 hartu nitxun.

■ **Piezarik handiena?** - 1,8 kiloko amurraina. Finaua, berriz, txixixa da. Zenbat eta gorao, erreka garbixua eta amurraina ere finaua.

■ **Txikia hartuz gero...** - Soltau ein bihar da. Amua tragauta badaka haura akabau eingo da baina...

■ **Debekua errespetatu beharra duzue.** - Bai. Kupuak, tamainak zaindu... baina beste batzuri ez jakue kargurik hartzen. Zikinak botatzen diaz eta oin ere akotautako erreka zatixan, potzu edarrak zaozen lekuan eskabadorak sartu dabez eta dana lau-lau ipini dabe. Amurrainak, baina, potzua bihar deu.

■ **Non dago arrantzalearen abilitadea?** - Kanaberia lantzau eta errekan urakin batera sartzen lagatzian, naturalidadia ematian.

■ **Amurraina gozoen?** - Goxuen zartanian olixotan prijiduta, urdai zaharrak bizitxuta. Harrapau eta berehala garbitxu eta hurrengo egunian hobe jatia, eta bigarrenian ere bai. Asentau eta gogortu eixten da.

• Adina: 76
• Etxean arrainzaleak? Bai, asko
• Zenbat kainabera dituzu? Lau bat
• Itsasoan bai?
Hamaika urtian ibilitxanao, atunian...

Maria Urizar
ileapaindegi
mixtoa
Errosario 9-1ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

UDA BERRI
ELGOIBAR

GC
glas control s.l.
Ubitarte 7 - ELGOIBAR
Tel.: 74 30 94 - 74 35 46

HEZETASUNARI
ITOGINEI
FILTRAZIOEI

EZ


GORENGO TEKNOLOGIA
ESTALKIAK, TERRAZAK, HODIAK, SOTOAK,
---Aurrekontuak konpromezurik gabe---

Arrantzarako sasoia iritsi da

Bihartik aurrera, hilak 16, errekan arrantzatzeke epea irekita dago. Elgoibarren Sallobente errekan berrin ahal izango da arrantzan ostegun, larunbat, igande eta jaigunetan. Sallobente barrutirako 3 baimen daude eta horiek La Unión elkartearen zozketatu dira arrantzarako baimena dutenen artean. Sallobente errekan amurruinak harrapatu ahal izango dira, beti ere gutxienez 22 cm.ko neurria badute. Mugabarrutia Ibarreneatik hasi eta Sallobente errekan gora kilometro batera bitartekoa da. Eguneke eta arrantzale bakoitzeko zazpi amurruinak harrapa daitezke gehienez, ziprinidoetan, berriz, ez dago gehienezko kopururik.

Debekuei dagokienean, galarazita dago edozein arrain mota askatzea eta kainabera da erabil daitekeen arrantza tresna bakarra. Baimendutako gutxienezko luzera baino gutxiagoko arrainak hartuz gero, berehala askatuko dira berriro uretan. Karramarrorik ezin da hartu. Gipuzkoako barrutietan arran-

tza baimenak erabili ondoren nahitaezkoa izango da harrapatutakoaren berri ematea. Horretarako arrantzaleak, nahiz eta baimenik ez erabili edo arrainik ez harrapatu, harrapaketa parte aurkeztu beharko dio Arrantza Federazioari arrantzan aritu ondorengo 15 eguneko epean. Hala ez egiteak denboraldi honetan eta hurrengoan baimen berririk ez ematea ekarriko du.



AZKUE

MOTZAK

Igeriketa Taldea

Olaizaga Kiroldegiko Igeriketa taldeko Judith Ajubita, Ines Segura, Amaia Revert, Esther Ajubita, Julia Fernández, Naiara Martín eta Javier Egea Arrasateko Kiroldegian izan ziren iragan den asteburuan. Amaia Revert 12''99tan hobetu zuen 400 libreetako denbora eta Esther Ajubitak 16''86tan. Judith Ajubitak 100 tximeletan bere marka pertsonala 13''03tan ondu zuen; Julia Fernándezek 08''28ko alde atera zion bere markarik onenari 200 metro bizkarrean, Naiara Martinek 12 segundo eta 45 ehuneneko eta Javier Egeak 4''79, hiruek 200 metro bizkarrean.

Judoko emaitzak

Ibai Klubeko infantil eta alebinek Gizpuzkoako Judo txapelketaren azken jardunaldian urrezko bost domina, zilarrezko beste hainbeste eta brontzezko bi irabazi zituzten. Zuhaitz Azpiazu, Egoitz Mora, Esther Idiakez, Zuriñe Polo eta Maialen Mora izan ziren urrezkoa lortu zutenak. Xabier Gonzalezek, Ganix Ostolazak, Josu Idiakezek, Aitor Gabilondok eta Maria Idiakezek zilarra eskuratu zuten eta Aitor Mugerzak eta Mikel Mugerzak brontzea. Finalak Donostian jokatu dira eta ziuurrenik 13 judoka hauek izango dute hara joateko aukera.

KIROL EMAITZAK

Saskibaloia

Txankakua S.T. 52 - Errenteri 48

Eskubaloia

Elgoibar 21 - Urnieta 13 (**Kad. neskak**)
Elgoibar 26 - Bergara 16 (**Kad. mutilak**)
Ordizia 14 - Elgoibar 19 (**Jubenilak**)
Ereintza 29 - Elgoibar 24 (**Seniorrak**)

Futbitoa

KOPA: Lukcy Luke 4 - Ikus Optika 0

Pedruskos 1 - Ametsa 0

Roke 6 - S. Karapola 2

B. Duro 2 - S. Braga 1

LIGA: Sanroketarra 4 - Oraiko Disko 1

Karkis 4 - Aldavas 3

Orbela 3 - King Kong 1

Kosakos 0 - P.S.K. 0

Pelota

Deba Arroko Txapelketa

Orbea II/Arrillaga (Lagunak) 12 -

Pradera/Gisasola 18 (Eibar)

Leon/Balzola (Lagunak) 22 -

Gandiaga/Andonegi (Eibar) 14

Ansola/Alzibar (Lagunak) 22 - L.A.

Narbaiza/A. Narbaiza (Eibar) 12

AGENDA

Futbola, Mintxelan

Larunbata, 16

10,15 Elgoibar - Union Txiki

(Kadeteak)

12,00 Elgoibar - Mondragon

(Jubenilak)

13,45 Urki - Gazteak (2. erreg.)

16,00 Elgoibar - Anaitasuna (1. erreg.)

Igandea, 17

10,00 Beti Sutan - Sanpedrotarrak (2. erreg.)

12,00 Elgoibar - Dunboa (Neskek)

13,45 Urki B - Intxaurren

(Jubenilak)

15,30 Urki A - Munibe (Jubenilak)

17,15 Elgoibar - Zarautz (Infantilak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Igandea, 17

12,00 Elgoibar - Legazpiko La Salle

(Jub. mutilak)

Futbitoa, Urasandin

Igandea, 17 (Arbitraia: Ametsa)

09,00 Karkis - Aldavas

S. Braga - Uda Berri

10,00 Lucky Luke - S. Pitxote

Sanroketarra - Oraiko Disko

MUSIKA HOTSA *fundizioan*

Azken hiru hilabeteetan Urasandiko Fundizio ingurutik pasatzen den edonork, handik kanpora ateratzen den musika entzun ahal izango du. Izan ere, fundizioa izan zen fabrika horretan gaur egun bost musika taldek entsaiatzen dute: Kokoteraino, Pneuma, Zeharka eta momentuz izenik ez duten beste bik.

Bi talde horietako bateko kide baten esanetan, “momentuz bateria bila gabiltza. Punky musika egiten dugu eta gure asmoa taldea osatzea da, kontzertuak eman ahal izateko”. Kokoteraino eta Pneuma taldeek denbora dextente daramate musikagintzan. Kokoteraino 1991n sortu zen eta orduan “Nahi eta Nahi ez” izena zeraman. Santa klaran aritu izan dira orain arte. Pneuma, berriz, 1992an sortutako taldea da. Punky musika egiten duen talde honek Urasandin zuen lokala Gabonetan Fundizioa eskaini zieten arte. Muruamendiazarrak, berriz, oraindik ez dute taldea sortu, ez izenik pentsatu ere. Halere, entsaiatzen daude noiz edo noiz

zerbait atera arte. Gabonetan Fundiziora joan arte, lagun baten garajea entsaiatzen zuten. Momentuz beste taldeen abestiak kantatzen dituzte eta bateria bila dabilta hauek ere.

Behin-behineko lokala da

Dirudienez, iaz 6Nemen9 taldea kultur teknikariarengana joan zen entsaiatzeko lokal bat eskatuz. Printzipioz gauza handirik ez zegoela pentsatu arren, gauzak azertu eta Urasandiko Fundizioarekin akordio batera iritsi ziren.

Hirigintzan dagoen proiektu baten arabera, fundizioa bota eta bertan rotonda bat egiteko asmoa dago. Halere, momentuz proiektua bideratua ez dagoenez, zerbait egin bitartean, lokalak aprobetxa zitez-

keela ikusi zen.

Musika taldeek txukundu zuten lokala

Musika taldeekin harremanetan jarri ziren eta batzuek tokia onartu zuten, nahiz eta egoera nahiko eskasean zegoen. Taldeek ahal zuten bezala txukundu eta hasiera batean hiru lokal baino ez bazueden ere, gaur egun bost taldek entsaiatzeko moduan dago.

Udalak egunero, gaueko 10ak 20 gutxitan argi indarra mozten die, auzokoek musika dela eta kexarik izan ez dezaten. Era berean, Udalak hala nahi badu, Fundizioan entsaiatzen duten taldeei kontzerturen batean parte hartzea eska diezaieke.



Gemma Monrealen lanak Kultur Etxean ikusgai

Gemma Monreal margolari elgoibartarraren erakusketa inauguratu zen joan den ostiralean. Margolaria ez ezik, Gillermo Garate alkatea eta Ana Santolaia kultura batzordeko burua ere bertan izan ziren. Hil honen 24ra arte ikusgai egongo dira elgoibartarraren koadroak Kultur Etxeko erakusgelan. Espatularen teknika eta pintzel arrunta dira Gemmak margoak pintatzeko erabili dituen teknikak. Kalekka

estuak, udaberri, neguko nahiz udazkeneko paisaiak, Elgoibarko paraje ezagunak... kolore, ñabardura eta sentsazioz beteriko tokiak ikusgai. Bisita ordutegia: arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean astegunetan eta eguerdiko 12etatik 2ak arte jaiegunetan.

Argazkian, Ana Santolaia kultur zinegotzia, Gemma Monreal margolaria eta Gillermo Garate alkatea agertzen dira inaugurazio egunean.



KULTUR FLASHak • KULTUR FLASHak • KULTUR FLASHak • KULTUR FLASHak

Litografia eta serigrafia ikastaroak Artelekun

Artelekuk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, bi ikastaro antolatu dira apirillean hasi eta abuztura bitartean. Bata artistei zuzenduriko litografia tekniken esperientziei buruzkoa da. Irakaslea Don Herbert izango da maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean. Lapitzen teknikak, tinta likidoa, frottagea, urkoloreak, gomazko erreterbak kolore lauekin, kalkoak, erregistroak, aerografoa, fotopantailak eta beste zenbait teknika landuko dira Herbert-en tailerrean. Izena emateko inskripzio orriarekin batera curriculum-a, egindako obraren kolorezko argazkiak edo diapositibak aurkeztu beharko dira

Artelekun bertan. Izena emateko azken eguna apirilaren 18a da. Bigarren ikastaroa Pepe Albacetek emango duen serigrafia tailerra izango da. Bi zatitan banatuta, serigrafiari buruzko hastapen ikastaroak apirilaren 15etik maiatzaren 17ra arte luzatuko da eta esperimentazio eta proiektuen gauzatzea maiatzatik uztailera bitartean. Lehenengorako izena emateko epea apirilaren 1ean amaitzen da eta bigarrenarako maiatzaren 6an. Ikastaro guztien zenbatekoa 13.000 pta.koa da hileko. Informazio gehiago jasotzeko Elgoibarko Kultur Zerbitzuko 74 21 58 zenbakira edo Artelekuren 45 36 62ra deitu.

Jaiak antolatzeko bilera Kultur Etxean

Udal Kultur Zerbitzuak Trinitate eta San Bartolome jaiak antolatzeko bilera larunbatero egitea erabaki du hemendik eta jai egitaraua prestatu arte. Aurreko bileretara jende gutxi agertu da, hamar bat lagun baino ez. Hortaz, herritar, elkarte eta kolektibo guztiei dei egiten zaie herriko jaien egitarauan parte hartzeko bilerara ager daitezen. Bilera larunbatero izango da, eguerdiko 12etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

MARTXOAREN 19a San Jose eguna

Erosi al diozu oparia aitari? Ez al dakizu zer erosi?

15 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Felpudo maldito”

16 LARUNBATA

12,00 JAIETAKO PROGRAMA
ANTOLATZEKO BILERA

✓ Kultur Etxean

19,30-22,15 ZINEA

“Felpudo maldito”

17 IGANDEA

16,30 ZINEA

“El niño invisible”

19,30-22,15 ZINEA

“Felpudo maldito”

18 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Felpudo maldito”

19 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Felpudo maldito”

21 OSTEGUNA

15,00 GOENKALEKO KIDEEKIN
SOLASALDIA

Ikastolako ikasleentzat

✓ Herriko Antzokian

22 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Show girls”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
16, larunbata:	Ormazabal	Escala
17, igandea:	Ormazabal	Escala
18, astelehena:	Etxeberria	Anduaga
19, asteartea:	Etxeberria	Anduaga
20, asteazkena:	Etxeberria	Anduaga
21, osteguna:	Etxeberria	Anduaga
22, ostirala:	Etxeberria	Zabaleta

OKINDEGIA:

17, igandea: ZABALETA

Eibarko XIX. Antzerki Jardunaldiak

Larunbata, 16 (Ordua: 20,30)

“Don Juan o el festín de piedra”

Escuela de Arte Dramático

Igandea, 17 (Ordua: 20,30)

“Rubianes: 15 años”

Pepe Rubianes

Astelehena, 18 (Ordua: 20,30)

“Un celoso extremeño” Teatro

Zascandil

Asteartea, 19 (Ordua: 20,30)

“Mas vale tango que nunca”

Compañía La Porteña

Asteazkena, 20 (Ordua: 20,30)

“Los Dioses y los cuernos”

Producciones Ñ

Osteguna, 21 (Ordua: 20,30)

Zinea: La versión Browning

Ostirala, 22 (Ordua: 20,30)

“Oleanna” (euskaraz) In Fraganti

* Emankizun guztiak Eibarko Unibertsitate
Laboralean izango dira.

Zinea

Felpudo maldito

Zuzendaria: Josiane Balasko
Antzezleak: Victoria Abril,
Josiane Balasko, Alain
Chabat.

Laurent Lolirekin dago ezkontua. Itxuraz bikote zorionsua osatzen dute. Egia esan senarrak bizitzan eduki daitekeen guztia dauka: bi haur, emazte etxeoandrea, egoera sozial ona, inmobiliaria agentzia eta emazteak ezagutzen ez duen maitasun istorio zenbait. Baina egun batean armonia perfektu hau hautsi egingo da. Marijo izeneko emakume bat azalduko da bikote zorionsuaren bizitzan: arazoa da Laurent eta Marijok, biek dutela emakume bera gustuko: Loli.



Garajeak

Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.
☎ 74 00 39

Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren.
☎ 74 30 81

LOKAL BAT alokatzen dut Madalan, almazenerako aproposa.
☎ 74 13 84

Garaje ITXI BAT alokatzen dut pista beltzean.
☎ 74 20 09 (gauez)

Lana

INFORMATIKAKo klaseak emateko pertsona bat behar da. (Programazioa, eta programak de utilidades) Bidali kurrikulumak Bergarako 245 P. K.

ZIENTZIA ALORREKO KLASEAK emateko pertsona bat behar da. Bidali kurrikulumak Bergarako 245 P. K.

PERTSONA NAGUSIAK zainduke lituzkeen emakume heldu bat naiz.
☎ 74 04 75

ETXEKO LANAK egiteko edo HAUR BAT ZAINTZEKO prest nago.
☎ 74 05 32 Zoila

PROPAGANDA BANATZEKO jendea behar dut.
☎ 74 30 37 (Deitu 10,00-13,00)

GARBIKETA lanak egiten ditut, orokorrak, leihoak eta obra bukaerako garbiketak.
☎ 74 39 63 Alicia

Salerosketak

IZOTZAK EGITEKO MAKINA eta MAKINA ERREGISTRADOREA salgai.
☎ 74 38 85 Gloria

Martxan dagoen BODEGA/ARDANDEGI bat saldu edo alokatzen dut Ondarroan. 125 m².
☎ (94) 683 12 02

LOGELA BAT saltzen dut. Bi ohe 1,20koak, armarioa eta mesilak. Egoera onean.
☎ 74 21 43 Kontxi

ESKIAK (1,85) eta eskiatzeko BOTAK (42) salgai. Egoera onean.
☎ 74 18 55 (gauean)

Ford Escort XR3, 16 v, SS AN kotxea saltzen dut.
☎ 74 34 63 Xabi (gauez)

Bestelakoak

BETAURREKOEN FUNDA galdu dut. Lila kolorekoa eta kohete batzuen marrazkiekin.
☎ 74 33 78

URREZKO PULTSERA bat galdu dut koral beltzekin.
☎ 74 26 78 Kontxi

Partikularrak

Frantseseko klaseak ematen ditut. Baita itzulpenak egin ere ahoz eta idatziz.
☎ 74 04 59 Jacqueline
74 44 51 (gauez)

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

Agurrak

Zorionak amama zeure berrogeitamapiku urtebetetzean.
Iker, Ander eta Aitor

Zorionak pitxona zure urtebetetzean.
(Edu) Pitxoi enmaskaratua

Martxoaren 17an 11 urte betetzen dituen Doña Ainara De Pedro andreari Enpozorionak!! 5. mailako adiskideen partez.

Zorionak GORETIri hilaren 15ean 15 urte beteko dituelako. Mariren partez.

Hilaren 12an 11 urte egiten dituan UNAI MUNOZentzat zorionak bere gurasoen partez.

Zorionak M.Joseri hilaren 15ean urte mordoia egiten dituelako. Antton eta Uxuereen partez.

Zorionak Uxueri hilaren 18an 12 urte beteko dituelako. Anttonen partez.

Etxebizitzak

Jantzitako pisu handi bat daukat alokatzeko.
☎ 74 04 75

Pisu bat saltzen dut Deban. Amueblatua. Prezio onean.
☎ 74 22 83 Kontxi

Bi irakasle gara eta pisu bat alokatu nahi dugu.
☎ 10 85 44 Patxi (goizez 9-13)

ALTZOLAN BUHARDILA BAT alokatzen dut. Hornituta eta baldintza onean.
☎ 74 37 41

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z..741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala ...756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA


San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki irratia74 34 74



2. PABILIOIAN GAUDE

COMETEL, S.A.

Ibaitarte kalea, 13 (San Antolin auzoa)
20870 ELGOIBAR

Biruten tratamendua

Likidoen filtrazioa

Garbigailu
industrialak

Manutentzioa eta
transportadoreak


Xafla ebaketen



TALLERES MYL, S.A.

Autonomia kalea, 4 - P.K. 81 - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 74 07 49 - 74 14 44 - 74 12 50 Faxa: 74 14 66

P R E Z I S I O M U N D U B A T



2. PABILIOIAN GAUDE




5. PABILIOIAN GAUDE

Makina bakoitzarekin lagun bat

Mekanizatu
bertikaleko zentruak

Torretadun
fresadoreak eta



URBANO CONDE, S.A.

San Antolin 1 - 55 P.K.
TEL. (943) 74 04 00 / 04 /
08
Faxa. (943) 74 32 37




ERREMINTA

Maltzagako kruzeta
Tel.: [943] 12 04 50
Telexa: 36689 - DELTE - E
Faxa: [943] 12 16 93


5. PABILIOIAN GAUDE






DANOBAT, S. Coop. Ltda.
Arriaga kalea, 21
Tel.: (943) 74 02 50
Telexa: 38610 DABAT-E
Faxa: (943) 74 31 38
20870 ELGOIBAR

5. PABILIOIAN GAUDE



Olaso industrialdea, 27
136 Postakutxatila
20870 ELGOIBAR
Tel. (9) 43 74 44 00
Faxa: (9) 43 74 43 70
C. MAIL: Goitek 01@ Sarenet. es

2. PABILIOIAN GAUDE



CAD-CAM Sistemak



Plantatik datuak
hartzeko estazioak